

EUSKADIKO EKONOMIAKO XI. OLIMPIADA

2019ko APIRILaren 5a

AZTERKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

- *Azterketak bigarren mailako batxilergoko "Ekonomia eta Enpresen Antolaketa"ri dagozkion bost galdera eta lehen mailako batxilergoko "Ekonomia"ri dagozkion bi galdera ditu. Hala ere, ikasleak zazpi galdera hautatik bost erantzun behar ditu, baina aukeratutako galderen artean gutxienez bat batxilergoko lehen mailako "Ekonomia" arlokoa izan behar da.*
- *Galdera bakoitzak 2 puntutako balioa du. Galdekizunaren ulermen gaitasuna eta erantzunetan arrazoiketa baloratuko da bereziki.*
- *Azterketaren iraupena ordu 2 da.*

EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETA

1.GALDERA

Luxuzko autoen ROXALLIN SA enpresak urteko 21.600 unitateko eskaera du Bizkaian. Auto bakoitza biltegian urtebete gordeta edukitzeak 10 euroko kostua du, eta egiten duen eskari bakoitzaren kostu finkoa 3.000 eurokoa da. Erantzun:

- a) Zein izango da eskariaren tamaina optimoa?
- b) Zenbat egunetik behin berritzen da eskaria?
- c) Enpresak 600 ibilgailu ditu biltegian une honetan eta eskariak astebete behar du iristeko. Zenbat egun barru egingo du hurrengo eskaria?
- d) 600 auto edukirik biltegian, enpresak erabaki du 120 unitateko segurtasun stock bat mantentzea, aurre egiteko eskariaren entrega atzera dezakeen edozein arazori. Noiz egingo du hurrengo eskaria?

2.GALDERA

Eneko Agirrek balio kontu bat kontratatu du SURBOLSA Balioen Sozietatean. 2019ko urtarrilaren 31n Siemens Gamesa enpresaren 2.000 akzio zituen balio kontuan, 11 euroan erosia bakoitza.

Otsailaren 4an, BBVAren 1.000 akzio erosi zituen, 4,78 euroan bakoitza. Balio Sozietatearen gestio gastuak eta erosketagatiko Burtsa kanonaren ordainketa 22,67 eurokoak izan ziren.

Martxoaren 15ean, Siemens Gamesaren 2.000 akzioak saldu zituen, 12,23 euroan bakoitza, eta BBVAren 1.000 akzioak, 4,70 euroan bakoitza. Akzioen salmentak gastu batzuk sortu zituen: Balio Sozietatearen gestio gastuak eta Burtsaren kanonaren ordainketa. Siemens Gamesaren akzioen salmenta gastuak 37,57 eurokoak izan ziren, eta BBVAren akzioen salmentarenak, 22,47 eurokoak.

ERANTZUN:

- a) Zer da enpresa baten akzio bat? Zer figura du akzio baten erosleak enpresaren barnean?
- b) Zer eskubide ditu enpresa baten akzio baten jabeak?
- c) Kontuan izanik Eneko Agirreraren akzio salerosketaren datuak, kalkulatu operazioaren emaitza eta inbertsiogileak lortutako errentagarritasuna.

3. GALDERA

BARBERIA SA enpresak beste produktu bat gehitu dio 2019ko salmenta katalogoari.

- a) Produktu berri bat fabrikatzeko, beharrezkoa da aurretik merkatu azterketa/ikerketa lan bat egitea? Zergatik?
- b) Zer teknika erabiltzen dira produktu berriak merkaturatzeko?

4. GALDERA

URDULIZ ikastetxeko 2. batxilergoko ikasleek kamisetak saltzea erabaki dute, dirua biltzeko beren eskualdean lan egiten duen GKE batentzat. Horretarako, kontuan hartu behar dituzte kostu hauek: biltegi gisa erabiliko duten lokala 1.050 euro kostatuko zaie; kamiseta bakoitza, 3 euro gehi 1,20 euro estanzazioengatik. Azkenik, diseinu grafikoko enpresak 400 euro kobratuko die kamiseten marrazkiaren diseinuagatik, gehi 0,30 euro kamiseta bakoitzeko. Kamiseten salmenta prezioa 12 euro da.

ERANTZUN:

- a) Zenbat kamiseta saldu behar dituzte kostuak estaltzeko?
- b) Demagun 3.000 kamiseta merkataturatzen dituztela. Zenbatekoa izan daiteke irabazia?
- c) Zenbat gehitzen dio irabaziari saldutako unitate gehigarri bakoitzak?

5. GALDERA

LA VANGUARDIAko ALBISTEA (2019/01/12)

Horrela bildu nahi ditu Gobernuak 2018an baino 20.000 milioi gehiago. Monteroren aurreikuspenen arabera, bilketa hazi egingo da zerga figura guztietan, nahiz eta Sozietate Zerga izango den arreta handiena piztuko duena.

(...) Ostiral honetan argitaratutako aurreikuspenek diote igoerak izango direla zerga figura guztien bilketan, **Sozietate Zerga** izango bada ere arreta handiena piztuko duena. Gobernuak espero du 2019an enpresa handiek 3.400 milioi euroko ekarpen gehigarria egitea Sozietate Zergaren bilketari. Gehikuntza hori etorriko litzateke tasa minimoak berritzeko erabakitik: % 15koa enpresa handientzat eta % 18koa bankuentzat eta hidrokarburu enpresentzat. Gainera, murriztu egingo da nazioarteko negoziotik eratorritako dibidenduen eta gainbalioen gaineko salbuespena, egungo % 100etik % 95era. Sarrera horiek konpentsatu egingo dituzte ogasunaren kutxan sartuko ez diren 260 milioiak, zerga hau murrizteagatik -% 25etik % 23ra- milioi eurotik beherako fakturazioa duten enpresa txiki eta ertainei.

BEZa izango da termino nominaletan bilketa gehien handituko duen bigarren zerga. Kontsumoan espero den bizitasunaren ondorioz, gobernuak iragarri du 8.181 milioi euro gehiago bilduko direla zerga honen bidez, 2018an baino % 11,7 gehiago, orain arte argitaratu diren likidazio datuen arabera. Hazkunde hori gertatuko litzateke, gainera, % 4ko tasa minimora jaitsi ondoren higiene femeninoko produktuei eta liburu eta prentsa elektronikoari ezarritako karga. % 21etik % 10era jaitsi da, halaber, albaitaritza zerbitzuei ezarritako tasa.

Edonola ere, beste urtebetez, **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga** izango da estatuko kutxari ekarpen handiena egingo dion zerga. PFEZ bilketa % 4,9 hazi eta 86.474 milioi eurotara iritsiko da. Hazkunde hori dator estatuko tartearen tributazioa handitzearen erabakitik: 2 puntu 130.000 eurotik gorako zerga oinarriei; 4 puntu 300.000 eurotik gorako zerga oinarriei. Halaber, beste 4 puntu igotzetik 140.000 eurotik gorako aurrezki errentei ezarritako tasa.

(...)

Irakurri arretaz albistea eta erantzun galderei:

- Azaldu zer diren letra lodiz eta azpimarratuta dauden hiru zerga motak.
- Horietatik zeintzuk dira zuzeneko zergak eta zeintzuk zeharkakoak? Zertan dira desberdinak bi motak?
- Albistean aipatzen diren neurrien artetik, zeintzuk izan dezakete eragin handiagoa enpresetan?

EKONOMIA

1. GALDERA

- a) Demagun Germania izeneko herrialde bat, mugak itxita dituen kanpoko merkataritzarentzat, bi ondasun ekoiztu eta kontsumitzen dituena: ogia eta esnea. Bi ondasunen eskaera eta eskaintza berdinak dira, eta funtzio hauen bidez adieraz daitezke: $Q^D = 3000 - 1000p$ eta $Q^O = 1000 + 1000p$ ($D =$ eskaria eta $O =$ eskaintza). Kalkulatu ondasun horien salmentaren oreka prezioa eta saldutako kantitatea.
- b) Aldameneko herrialdea, Magernia izenekoa, Germaniaren antzekoa da. Ondasun berberak ekoizti eta kontsumitzen ditu, eta eskaera eta eskaintza funtzioak Germaniako funtzio berberak dira. Badago pizgarririk bi herrialdeek beren mugak zabaltzeko kanpoko merkataritzari? Galderari erantzuteko, kontuan izan merkatu globalean eskaera osoa $Q_T^D = Q_G^D + Q_M^D$ dela eta eskaintza osoa, $Q_T^O = Q_G^O + Q_M^O$.
- c) Kalkulatu ogiaren oreka prezioa eta kantitatea. Zenbatekoa da herrialde bakoitzean trukaturako kantitatea?
- d) Demagun orain Germania espezializatu egin dela ogiaren ekoizpenean eta Magernia esnearenean, haien produktibitatea hobetzeko helburuaz. Horrela, ogi eskaintza $Q_G^O = 1200 + 3600p$ izatera igaroko litzateke eta, esne eskaintza, $Q_M^O = 1200 + 2000p$. Kalkulatu zenbatekoa izango litzatekeen ogiaren prezioa eta ekoiztutako kantitate osoa, eta bereizi zer zati gelditzen den barne merkatuan eta zer zati esportatzen den. Egin kalkulu berberak esnearentzat.
- e) Kontuan izanik c) atalean bi herrialdeentzat lortutako emaitzak, azaldu globalizazioak abantailarik baduen ala ez, bi herrialdeetako ogi eta esne ekoizleen ikuspuntutik nahiz kontsumitzaileenetik.

2. GALDERA

EL PAISeko albistea (19/01/14)

2019ko aurrekontuen gakoak. Azpimarratzekoak dira gastu sozial handiagoa, inbertsio handiagoa Katalunian eta funtzionarioen soldata igoera.

Astelehen honetan gobernuak Kongresura bidali du ostiraleko Ministroen Kontseiluan onartu zuen Estatuko Aurrekontu Orokorren proiektua. Hala, hainbat hilabetez luzatuko den parlamentu tramitazioa hasi dute kontuek. Dena dela, ez dago ziur azkenean kontuak onartuko diren, gobernuaren bazkide Podemosek mugak eskatzen dituelako alokairuen prezioentzat, eta alderdi kataluniarrek oraingoz ez dute aurrekontuen aldeko jarrerarik erakutsi, Kataluniarako inbertsioen partida handitu izanagatik. Proiektuak gastu igoera handiak jasotzen ditu, gizarte arloetan bereziki: % 59ko igoera mendekotasunean, % 41ekoa etxebizitzan, % 40koa azpiegituretan...

Pentsioak aurrekontuen ia erdia dira jada, 153.000 milioi euro 345.000 milioietatik. Horren guztiaren oinarrian, markak hautsiko lituzkeen zerga bidezko sarreraren aurreikuspena dago, batzuentzat optimistegia: 225.000 milioitik gorakoa. Azken batean, "ongizate estatua blindatzeko" kontuak dira, Isabel Celaa exekutiboko bozeramaileak ostiralean esan zuen bezala, orain Kongresuan aurrera atera beharko direnak.

(...)

Irakurri arretaz albistea eta erantzun galderei:

- a) Zer dira Estatuko Aurrekontu Orokorrak?
- b) Zer eginkizun dauka sektore publikoaren aurrekontuak politika ekonomikoaren tresna gisa?
- c) Zertaz ari da ministroa "ongizate estatua blindatzea" dioenean?